

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEKO ARAUTEGIA IKASKETA AMAIERAKO APARTEKO DEIALDIRAKO

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Graduko titulazioetako ikasleen ebaluaziorako arautegian (Gobernu Kontseiluak 2016/12/15ean onartua (EHAA, zk.: 50, 2017/3/13) eta 2019ko maiatzaren 30eko erabakiaren bidez aldatua (2019/06/28ko EHAA) eta 2020ko otsailaren 19an Graduko Batzordeak onartutako araudi osagarria), honakoa dago jasota II. kapituluaren, 10. artikuluan:

Ikastegi bakoitzak zehaztuko ditu ikasketa amaierako azterketei buruzko arauak, baina, gutxien dela, ondokoa ezarriko da ikasketa guztietarako:

- 1. Lehenengo matrikulakoak ez diren irakasgaietan baino ezingo da ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin. Salbuespen bakarra izango da Gradu Amaierako Lana.*
- 2. Ikasketa amaierako deialdirako eskaria egin ahal izango dute ikasketak amaitzeko gehienez ere 30 kreditu falta dutenek, ondorio hauetarako kontuan izan gabe Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak.*
- 3. Matrikularen arabera irakasgai, talde eta deialdiaren ardura daukaten irakasleek egingo dizkiete azterketak eskatzaileei.*
- 4. Ikasketa amaierako azterketak ebaluatzeko erabili den sistema azken ebaluazioa izango da.*

Unibertsitateko ikasleen arloko araudiarekin bat etorruta, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, 2022ko uztailaren 21ean egindako bileran, Akademia Antolakuntzako Batzordearen proposamenari jarraituz, honako baldintzak onartu zituen ikasketa amaierako aparteko deialdirako.

Lehenengoa.- - Matrikulatuta egotea ikasketak amaitzeko beharrezkoak diren kreditu guztietan (Gradu Amaierako Lana aukerakoa da).

Bigarrena.- - Ikasle batek ikasketa amaierako aparteko deialdia eskatzen badu, gainditzeke dituen irakasgai guztietarako egin beharko du eskaria (GRALerako aparteko deialdia eskatzea aukerakoa da).

Hirugarrena. - Bigarren lauhilekoko irakasgaietarako eskatu ahalko da deialdia aurreratzeko (lehenengo lauhilekokoak lehenengo lauhilekoko ohiko deialdiari dagozkion datetan egingo dira).

Laugarrena. - Ikasketa amaierako aparteko deialdia eskatu eta gainditzen ez duten ikasleentzat, hurrengo deialdia uztaileko ezohiko deialdia izango da. Salbuespena Gradu Amaierako Lana da; izan ere, kasu horretan uztaileko ohiko deialdia edo urriko ezohiko deialdia aukeratu ahal izango du ikasleak.